



Arartekoaren 2016R-11-16 Ebazpena, 2016ko apirilaren 19koa. Horren bidez, Mungiako Udalari gomendioa egin zaio familia bati zaborren tasaren kontzeptupean kobratutako likidazioak ofizioz baliogabetu ditzan, familiaren baserrian ez duelako zaborrak batzeko inolako zerbitzurik eman.

Aurrekariak

1. Familia kexagilea Mungiako landa eremuan bizi da (...), eta Mungiako Udalaren jarduna zalantzan jarri du Arartekoaren erakundearen aurrean. Baserri horretan, familia honek landetxe jarduna garatzen du, eta gaua igaro eta gosaria hartzeko zerbitzuak eskaintzen ditu.

2015eko urrian Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren gutun bat jaso zuten; bertan azaldu zenez, Mungiako Udalak partzuergo horren esku utzi zuen zaborrak batzeko udal tasak kudeatzea eta kobratzea. Horrez gain, zaborraren tasaren erroldan etxe hura jasoko zutela adierazi zuten (ofiziozko altaren bitartez), ez baitzegoen jasota. Azkenik, handik gutxira zaborren tasak fakturatuko zitzaizkiela ere aurreratu zieten.

Igorritako erreziboa 2015eko irailaren 23tik 2015eko urriaren 23ra arteko tarteari zegokion eta zenbatekoa 35,46 eurokoa zen.

2. Familia kexagileak tasa hori kobratzearekin ados ez zegoela azaldu zuen, argudiatu zutenez, zerbitzu hura ez zietelako benetan eta modu eraginkorren eskaintzen. Etxetik gertuen zituzten hondakin organikoetarako edukiontzia 800 metro ingurura zizutela nabarmendu zuten. Horrez gain, ezarritako tarifa neurritz kanpokoa iruditzen zitzaien: 187,85 euro hiruhileko bakoitzeko.
3. Mungiako Udalak ez zuen errekurtsioa onartu, eta zaborrak biltzeko zerbitzuak nahitaez jasotzeko zerbitzu izaera duela nabarmendu zuen. Halaber, zaborrak batzeko zerbitzua udalerrri guztian ematen ari zela defendatu zuen, eta hizpide dugun familiak zabor organikoak batzeko edukiontzia (...)n zituela, etxebizitzatik 800 metro inguruko distantziara. Gaika biltzeko edukiontzia higiezinetik 1.500 metro ingurura daude.

Ebazpenak, gainera, hauxe jaso zuen: *“en determinados casos en los que por las particularidades orográficas y topográficas del municipio, es indudable que no puede prestarse el servicio en el domicilio particular de cada sujeto pasivo, procurando colocar los contenedores en los lugares que se consideran más idóneos para ello”.*





4. Erakunde honek Mungiako Udalari egindako txosten eskaeran familia horri igorritako ordainagiriak berrikusteko eskatu genion; izan ere, edozein tasaren ordainarazpenerako baldintza da subjektu pasibo zehatzari zerbitzua benetan eta modu eraginkorrean ematea. Hau da, zerbitzua existitzea eta udalerrian eskaintzea ez da nahikoa tasa kobratzeko; aitzitik, horrez gain subjektu pasiboari modu zehatz batean eragingo dion edo onurak eskainiko dizkion baldintzetan eman behar da. Hortaz, zaborrak batzeko tokiraino dagoen distantziaren faktorea aintzat hartu behar da. Mungiako Udalak berak onartu zuen moduan, hizpide dugun etxebizitzaren eta zabor organikoetarako edukiontzia artean dagoen distantzia 800 metro ingurukoa da. Gaikako bilketarako edukiontzia urrunago daude, 1.500 metro ingurura.

Horrez gain, gure informazio eskaeran [Arartekoaren 2/2010 gomendio orokorra, abenduaren 1eko, Zaborraren tasa kobratzea, nahiz eta Gipuzkoako zenbait udalerritan zerbitzua modu eraginkorrean eman ez](#) dokumentuaren kopia bat igorri genion Mungiako Udalari. 2010. urteko gomendio orokor horretan Arartekoaren erakundeak kexa honetan agertu den arazoa aztertu zuen, eta, ondorio gisa, udal ordenantzetako testuetan arazoizko distantzia zehatzak finkatzea gomendagarria zela plazaratu zuen, distantzia jakin batetik aurrera eremu horretan kokatutako etxebizitzek zaborren tasa ordaintzeko betebeharra ez zutela izango finkatuz. Bidenabar, landa eremuetan zaborrak batzeko zerbitzua ematen ez den aldiak iraun bitartean toki entitateek eremu horietan kokatutako higieziei tasa horren eroldan baja eman beharko zutela nabarmendu zen, higiezin eta bilketa puntuen artean distantzia handiak egonez gero.

5. Mungiako Udalak, emandako erantzunean, tasa kobratu beharra berretsi du, errekursoaren ebazpenean familiari azaldutako arazo berberak argudiatuz. Hala, duela zortzi urte ingurutik zerbitzua udal mugarte guztian eskaintzen ari dela defendatu du, kanpoaldeko auzoetan barne. Hala ere, onartu zuenez, *“la prestación de dicho servicio en zonas rurales puede tener el inconveniente en determinados casos, de que la instalación de los contenedores establecidos al efecto, pueden estar situados a una distancia superior a la que pueden estar en la zona urbana del municipio, habida cuenta ello de las particularidades orográficas y topográficas del municipio”*.

Horrez gain, honako hau argudiatu zuen: *“por otra parte y en otros casos el alejamiento de la instalación de los contenedores, viene derivado de las indicaciones de los propios afectados por el servicio que no desean un contenedor cerca de su vivienda por los inconvenientes que ello genera”*.

Azkenik, oso modu orokorrean honako hau aipatu zen: *“se irán adoptando las medidas pertinentes por parte de este Ayuntamiento en aras a ofrecer un servicio mejor y más cercano para el ciudadano.”*





Gogoetak

1. Toki araubideari dagokion gure legediak ezarri du udalerriek, dagoen udal eremuaren barruan, zenbait zerbitzu bere gain hartu eta eskaini behar dituztela, besteak beste, "Hondakinak batzeko eta tratatzeko zerbitzua" (25.2.1 art.).

Zerbitzu publiko hori ematearen truke, toki entitateak zerbitzuaren kontraprestazio ekonomiko gisa tasa bat ordaintzea eskatzeko ahalmena dauka. Hain zuzen ere, Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 21. artikulua haxe dio: *"Toki erakundeek, foru arau honetan ezarritakoaren arabera, tasak ezarri ahal izango dituzte tokiko herri jabariaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu berezia egiteagatik, edota zergapekoei dagozkien edo haientzat eragin nahiz onura berezia dakarten zerbitzu edo jarduerak zuzenbide publikoko araubidean egiteagatik, baldin eta zerbitzu edo jarduera horiek ez badira zergapekoek beraiek borondatez eskatu edo jasotakoak, edota sektore pribatuak halako zerbitzu edo jarduerarik egiten ez badu".*

Hondakinak batzeko zerbitzuak zenbait berezitasun ditu, nahitaez jaso beharreko zerbitzu bat delako, hau da, pertsona erabiltzailearen esku jartzen den unetik, pertsona horrek finantzatzen laguntzeko betebeharra dauka, erabili zein ez, tasa bat ordainduz. Baina herritarrari dagokion nahitaezko jasotze horrek, trukean, zerbitzua herritarren esku modu errealean eta eraginkorrean jartzeko betebeharra eragiten dio administrazioari. Udalerrian ondasun higiezin baten titulartasuna izateak ez die bizilagunei hondakinak batzeko eta tratatzeko zerbitzua ordaintzen laguntzeko betebeharra eragiten. Herritarrek ordaintzeko betebeharra izateak zerbitzua emateari lotutako elementuak erabilgarri jartzeko esfortzua eragiten dio kobratuko duen administrazioari, alegia edukiontzia, hondakinak batzeko guneak... higiezin horiek kokatuta dauden eremuan bertan.

Arazoa maiz agertzen da, azken urteetan toki erakundeak udal zerbitzu batzuk herrigunetik kanpo ere eskaintzeko esfortzua egiten ari dira, horien artean zaborrak batzeko zerbitzua. Ekimen hori, erabaki ondoren, ordainagiria kobratzearekin lotzen da, eta batzuetan ez da aintzat hartzen tasa kobratu nahi zaion pertsonari zerbitzua benetan eta modu errealean eskaintzen ari zaion.

2. Mungiako Udaleko hiri hondakin solidoak eta zaborra batzeko, tratatzeko eta desagerrarazteko tasa arautzen duen zerga ordenantzak haxe adierazi zuen: *"constituye el hecho imponible de la Tasa por la prestación tanto si se realiza por gestión municipal directa como a través de algún contratista o empresa municipalizada, del servicio de recepción obligatoria de recogida de basuras domiciliarias y residuos sólidos urbanos de viviendas, alojamientos y locales o*



establecimientos donde se ejercen actividades industriales, comerciales, profesionales, artísticas y de servicios, así como su tratamiento y eliminación” (2.1 art.). Halaber, adierazi zuenez, “son sujetos pasivos contribuyentes las personas físicas o jurídicas y las entidades a que se refiere el artículo 33 de la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia, que ocupen o utilicen las viviendas y locales ubicados en los lugares, plazas, calles o vías públicas en que se preste el servicio, ya sea a título de propietario o de usufructuario, habitacionista, arrendatario o, incluso de precario.” (3. art.) eta zehaztu zuenez “se devenga la Tasa y nace la obligación de contribuir desde el momento en que se inicie la prestación del servicio, entendiéndose iniciada, dada la naturaleza de recepción obligatoria del mismo, cuando esté establecido y en funcionamiento el servicio municipal de recogida de basuras domiciliarias en calles o lugares donde figuren las viviendas o locales utilizados por los contribuyentes sujetos a la Tasa.” (7. art.).

Hau da, tasa kobratzea eskatu ahal izateko ezinbestekoa da, udalean zerbitzua sortu izanaz gain, zerbitzu hori ordaintzeko eskatzen zaien herritarrei modu eraginkorrean ematea. Ordenantzak berak zehaztu zuen une hori, eta tasa sorrarazteko etxeko hondakinak batzeko zerbitzua tasa ordaindu behar duten zergadunek erabilitako etxebizitzak edo lokalak dauden kale edo tokietan finkatuta egotea eskatzen du.

Gomendio honen aurrekarietan adierazi den moduan, baserri horretatik gertuen dauden hiri hondakin solidoetarako edukiontzia ez daude kaltetunak bizi diren kalean bertan, baizik eta Santa Elena Bidean, zergapetu den higiezinetik 800 metro ingurura. Horrenbestez, ezin da baieztatu, udal ordenantzaren testua bera jarraituz, hondakinak batzeko zerbitzua etxebizitzak dauden kalean ezarri denik.

Zerga kuotaren zenbatekoa ordenantza horren seigarren artikuluan landu zen; bertan adierazi zenez, aplikatu beharreko tarifa honako hau da:

“Por cada vivienda particular: 30,24 € (...)

Por establecimiento de superficie superior a 100 mts: 107,85 €”

Azaldu den moduan, familiak landetxe jarduna garatzen du baserrian, gosari eskaintza barne.

Azaldu behar da, gainera, tarifa horiek aplikatzeko orduan, ordenantzak ez duela ezer aipatzen higiezinaren landa edo herri inguruaren kokapenari dagokionez, ezta higiezinetik hiri hondakinak biltzeko gertukoaren puntura arte egon daitekeen distantziari dagokionez ere.

3. Zerbitzua benetan emateari lotuta, egokitzen jo dugu Auzitegi Gorenaren adierazpenak aipatzea (1996ko otsailaren 20ko Epaia [RJ\1996\1483] eta 1997ko ekainaren 7ko Epaia [RJ\1997\6672] eta Errioxako (1997ko uztailaren 30ekoa [JT 1997\1148]), Gaztela-Mantxako (1997ko irailaren 25eko epaia [JT 1997/1335]), eta Madrilgo Justizia Auzitegi Gorenena (2002ko maiatzaren 27ko epaia [JUR 2002\236675]); horien bitartez ezarri zen tasa kobratzea bidegabekotzat delako baldin eta udalerririk ez badiu zerbitzua ongi eskaintzen ordaintzeko eskatzen dion herritar zehatzari.

Hala, Auzitegi Gorenak, lehenago aipatutako 1997ko ekainaren 7ko epaian, honako hau adierazi zuen:

“...Es obligado, a este respecto, recordar que el hecho imponible de la tasa viene constituido por la prestación de un servicio o la realización de una actividad que beneficia o afecta de modo particular al sujeto pasivo. Lo dice taxativamente el artículo 26.1, a) de la Ley General Tributaria de 1963 (RCL 1963, 2490 y NDL 15243), según el cual las tasas son tributos cuyo hecho imponible consiste en la prestación de servicios o la realización de actividades en régimen de Derecho público que se refieran, afecten, o beneficien a los sujetos pasivos, cuando concurren las dos circunstancias siguientes: a) Que sean solicitud o recepción obligatoria para los administrados; b) Que no puedan prestarse o realizarse por el sector privado por cuanto impliquen intervención en la actuación de los particulares o cualquier otra manifestación del ejercicio de autoridad o porque, en relación a dichos servicios, esté establecida su reserva a favor del sector público conforme a la normativa vigente.

Por tanto, ni siquiera la mera existencia de un servicio municipal es suficiente para constituir a una persona en sujeto pasivo de la tasa establecida para su financiación, si el servicio no se presta de modo que aquélla pueda considerarse especialmente afectada por aquél, en forma de beneficio efectivo o provocación por el interesado de la actividad municipal, pues sólo con esas características puede ser un servicio municipal legitimador de la exigencia de la tasa.”

Horrez gain, lehen aipatutako beste adierazpen judicial bi aipatzea ere egokitzen jo dugu, hain zuzen ere Gaztela-Mantxako Justizia Auzitegi Gorenaren 1997ko irailaren 27ko epaia; bertan espediente honetan hizpide dugun egoeraren pareko kasu bat aztertu zen, eta horren aurrean, epaitegiak emandako epaian bidegabekotzat jo zuen tasa bat kobratzea, egiaztatu egin baitzen errekurtsioa aurkeztu zuen pertsonaren etxearen inguruan ez zegoela zabor edukiontzirik 300 metro baino gutxiagora. Horrelako kasuetan, epaitegi horrek onartu zuen moduan, ez da udal zerbitzua ematen, tasa ordaintzea eskatu ahal izateko



zerga egitatea ez baita gertatzen, hau da, zerbitzu bat ematea edo subjektu pasibo bati modu berezian eragin ona sorraraziko dion jarduera bat egitea.

Zehazki, epaiak hauxe ezarri zuen: *“en el domicilio de la entidad recurrente no existe ni ha existido nunca contenedor de basuras, encontrándose el más próximo a 300 metros de distancia, y que por tanto no se le ha realizado el servicio de recogida de basuras, procede declarar vulnerados los artículos 20 y 26 de la Ley de Haciendas Locales, ya que para poderse exaccionar una tasa determinada es necesario que el municipio preste el servicio y que éste beneficie especialmente al administrado o le afecte de modo particular, por lo que no se puede exaccionar una tasa por un servicio que no se presta”.*

Madrilgo Justizia Auzitegi Gorena tinkoago agertu zen 2002ko maiatzaren 27ko epaian, hauxe adierazi baitzuen: *“de acuerdo con el sentido común tal servicio no se presta si el titular del domicilio ha de desplazarse 500 mts.”* Egoera hartan aztertutako kasua ere hondakinak batzeko zerbitzuari zegokion, eta kexagilearen etxetik gertuen zegoen puntua 500 metrora zegoen.

3. Adierazi bezala, toki entitate horrek ez du distantziaren faktorea aintzat hartzen zerbitzu hau arautzeko ordenantzaren, nahiz eta biltzeko puntura dagoen distantziak eragin nabarmena eta argia daukan zerbitzua ongi eta modu errealean eskaintzean.

Horrez gain, aintzat hartu behar da Toki Erakundearen Zerbitzuen Araudian, 150.1. artikuluan, hauxe jaso zela: *“La tarifa de cada servicio público de la Corporación será igual para todos los que recibieren las mismas prestaciones y en iguales circunstancias.”* Bada, edukiontzietatik metro gutxira eta 800 metroko distantziara (hizpide dugun kasuan, esaterako) bizi diren pertsonak ez daude egoera berdinean.

4. Edozein zerga eragiten duen zerga egitatea frogatzeko ardua ordainarazpena eskatzen duen administrazioari dagokio. *“Y esa prueba, por lo que hace a la tasa de basuras, requiere demostrar que el domicilio del pretendido obligado, no solo ha dispuesto de un servicio de recogida en su proximidad sino que ha podido beneficiarse del mismo en términos y condiciones que no comporten un sacrificio personal superior al que se considera tolerable a estos efectos en los usos sociales. Es decir, no exigiéndole más que un corto desplazamiento que pueda desarrollar en escasos minutos, y por un vial que no le signifique una incomodidad o inseguridad superior a la ordinaria.”* (Murtziako Justizia Auzitegi Gorenaren 1998ko maiatzaren 11ko epaia [JUR 1998\99257]).

Horrenbestez, ezin dugu esan zaborrak batzeko udal zerbitzua familia horri modu eraginkor eta errealean eman zaionik. Bestela esanda, familia horri dagokionez, ez da zergaren zerga egitatea sortu eta, horrenbestez, ezin da ordainarazteko eskatu.





Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11.b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, honako hau plazaratu da:

Gomendioa

Mungiako Udalak ofizioz baliogabetu ditzala familia kexagileari igorritako likidazioak, hondakinen tasaren kontzeptupean, etxebizitzaren inguruan ez diolako hondakinak batzeko inolako zerbitzurik eman.

Mungiako Udalak familia horri baja eman diezaion tasaren erroldan, arlo horretan zerbitzua ematen ez den bitartean, eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari horren berri eman diezaion.

Zerbitzu hori arautzen duen udal ordenantzaren testuan, bilketa puntuetara arteko arazoizko distantzia zehatzak finkatu beharko lirateke, eta eremu horretan kokatutako higiezinak hondakinen tasa ordaintzeko betebeharririk izango ez duten distantzia zehaztea ere komenigarria izango litzateke.

